

EUSEBIO ERKIAGA

Neurtitzak

EUSEBIO ERKIAGA

Neurtitzak

Sarrera eta testu-hautaketa: Igone Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2007

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Labayru Ikastegia

Diseinu editoriala: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-89816-31-2 L. C.: BI-3230-07

SARRERA

Labayru Ikastegiak argitaratu barri dau Eusebio Erkiagaren poeziatzko idatzien bilduma, *Goizean eta arratsan. Eskubete neurtitz* izenagaz. Corpus handia eta ederra benetan. Liburu bi bete-beteak osotu dira han-horhemen sakabanatuta eukazan idatziak idazleak berak batuta.

Poesia-lan osoak batzea zan argitalpen horren helburua eta horretarako egokia da, baina aldi berean lan zabalegia da irakurle arruntarentzat, Erkiagaren olerkigintzan aparteko interesik euki barik haren barri hartu gura dauanarentzat. Horregaitik, behin corpus osoa batuta, zabaltzeko beste bide batzuk erabiltzeari egoki eretxita, hona hemen olerki hautu batzukaz osotutako liburutxoia. Eusebio Erkiaga Lekeition jaio zan 1912an. Ha ta guzti be, bere bizitzako zatirik handiena Bilbon emon eban, hori bai, Lekeitiogaz lotura estu-estu eukala.

XX. mendearen hasierako euskeraren aldeko susperraldia bizi izan eban eta gazte-gazterik hasi zan parte hartzen orduko aldizkarietan era askotako idatziak eginez, dala sorkuntza, dala kazetaritza, dala etnografia. *Euzkadi* egunkariaren bitartez Lauaxeta idazle handiagaz ezagupidea egin ebanetik, idazle horren eragina eta uku-

tuak Eusebioren idazle-bizitzan betiko iraun eban. *Eguna* euskerazko lehenengo egunkariko erredazino-taldekoa izan zan.

Idazle gisa, lehenengo lanak poesia moldean egin ebazan eta ez eutsan inoiz bide horrerri muzin egin, hil arterainoko guztian olerkiak egiten jarraitu eban, bizitzako gorabeherak denpora eta gogoa ixten ebezan bitartean behintzat.

Erkiagarentzat poesia egitea berezko komunikazino-bidea zan, edozein ekitaldi, ekintza, gertaera, sentimendu atxakia ona da bertso bat egiteko, norbaiti oparitzeko, argitaratzeko nahiz etxean gordetzeko izan arren.

Gerra Zibilak aurreko urteetako euskal giroaren susperraldia guztiz isildu eban, idazleetako batzuk hil (Lauaxeta bera, kasurako), beste asko erbesteratu eta gainerakoak zentsuraren zigorpean euren zereginetatik guztiz aldentu behar izan eben. Isilaldi luzea izan zan, Eusebioren produzinoan be urtez urte erreparau ezkeru ondo igarten dana. Baina orduan be txiri-txiri jarraitu eban bere lantxoak egiten, gaur argitaratuta daukagun lanean igarten danez.

Euskaltzain osoa izendatu eta, erakunde horretan bete ebazan ardurez gainera, hizkuntzaren etorkizunerako XX. mendean egin izan diran proposamenetan partu hartu eban, Villasante, Krutwig eta beste hizkuntzalari

batzukaz batera. Hizkuntzaren bilakaera hori agiri-agirian dago Erkiagaren idazlanetan, berak teoria ezeze praktika be egiten eban eta.

1958an etorri zan lehenengo nobela, *Arranegi*, Itxaropenak argitaratua. Harrezkero beste nobela batzuk be argitaratu izan ditu eta, hori dala-ta, nobelagile gisa eza-gunagoa egin da. Genero horretan sei lan idatzi ditu. Baina beste batzuk be landu dauz: kazetaritza, itzulpena, antzerkia, saioa. Idazle oparoa da, bizimodu profesionalean bankuko behargina izan arren, humanista kutsukoa.

Gizon zabala izan da, ikusi besterik ez dago zenbat alkarte eta erakundegaz lotura euki dauan. Zabala idazteko joeretan be, beti ikasteko prest, idazle gazteagoak idazten dabena irakurtzeko gosez eta han edo hemen egiten danaren barri jakin gurakoa.

Bizkaiko euskal literaturan derrigorrez kontuan hartu beharreko idazlea dogu, idazle ibilbidean gainera XX. mendea ia osorik hartzen dauala kontuan hartuta.

Erkiagaren idatzietan doinu asko aurkituko ditu irakurleak, batzuetan mistikoagoa, barrura begira, beste batzuetan umore puntua erakusten dau edo herriko kontuak emoten ditu.

Orokorrean testuen soinuari eta erritmoari garrantzi handia emoten deutso, baita gauzak adierazteko berba

egokiak erabiltzeari be. Jostalaria da hizkuntzagaz eta erregistro aberastasun handia darabil.

Lekeitio eta itsasoa alde batetik eta Bilbo eta bizimodu modernoak dakarrezan aldaketak lan osoan zehar presente dagoz. Horreekaz batera, bere pentsakera agirian geratzen da: herria, familia, fedea, ohiturak, bizimodu tradizionala. Olerkietan batzuk omenaldi moduan egingdakoak dira, eta horrek bidea emoten dau jakiteko beretzat ze idazle diran erreferente, kasurako.

Eusebio Erkiaga 1993an hil zan Bilbon. Bizi zala, hainbat sari eta omenaldi hartu ebazan bizitza osoan zehar euskeraren alde eta euskal kulturaren arloan hainbeste urtean jardun eta hainbeste lan egitearren. Lanik gehienak azken urteetan argitaratu ebazan, eta poesia-bilduma hil ostean. Hori dana bizialdi ekinaren saritzat hartu daiteke.

1989an aldizkari honetan bertan, 18-19 zenbakiaren separata gisa, *Ez zaitetz Gernikara joan, Lauaxeta* poema argitaratu eban, Lauaxetari eskainia. Gaur berari eskaini gura deusagu tarte hau, bere lanak gehiago ezagutu daitezcan.

Igone Etxebarria

AITITAREN BASETXEA

Bideak zehar basorantz doa kirrin-kirrinka burdia,
hegan ez dabil, kikilik dago udazkeneko eulia.
Gabonileko aldian gagoz: gabonileko eguna
argidiria izan daneko datorkigu gau iluna.

Aita-semeak basorantz doaz behi-buztarridun burdiaz
basetxe ondora ekarteko beterik azpigarriaz.
Seme-alaba txiki sendoak joan zirean eskolara,
aitita zaharra ohetik jagi ta berehala sutondora.
Ezkaratzean sehaskatxuan datza negarrez umea,
bere zaintzaile arduratsua amatxu bizkor ernea.

Basetxea sendo ta zaharra da, harrokeririk bakoa,
gure ibar eta mendietan direanen antzekoa.
Basetxe aurrez labagelea, urruntxuago osina,
atartean dau burdilekua, etxaburuan patina.
Basobidean dau iturria bere izenez *Urgozua*,
hango uragaz beterik beti gure edarra piloa.

Etxe ondoan ibiltzen ziran oraintsurarte oiloak,
hara ta hona gelditu barik arakaturik soloak.
Etxetik dakust orain basoan eurena daben tokia,
zur ta zohiakaz eginak ormak, teilatutxua gorria.

Beheko erreka ondoan dago arditxabola lehen zana,
gaur ardiz barik orbel ta iraz beterik egoten dana.

Eusebio Erkiaga

Intxaurrondoak, mahasti txikerra, kerixa eta ikoak,
basalorak eta sagastiak, madariondo sendoak.

Landa ta mota, larra ta baso basetxearen bazterra,
bekazaleak arduraz zaintzen dakian bere altxorra.

1931

BALTXERANA

Oi, horreek begi baltzok,
ene baltxerana,
tinka-egiten deuste
tinka zeuregana.

Sugearen begiak
txoriari antzo
nire ikusmen oro
jarten deuste lauso.

Lora-orri orleia
paparrean txairo
daroiazu; bai, maite,
an betiro.

Hagin zuriak dozuz,
gorriak ezpanak,
ta oinak bai politikak
polit eta arinak.

Orlegi dan margoak
bai damost kemena,
margo horrek ikurtzen dau
ene itxaropena.

Eta irripar kirkira
leunagorik ete?
Zoragarri zarala
danak uste dabe.

Poztu nire bihotz hau
ta bai besteenak;
osatu, maitasunez,
zauri minkorrenak.

Argitu niri bizitz
biderik onena;
ez ahaztu inoiz ene hitzok,
begi baltxerana.

1933

ETXEKO POZA

*Adiskide ona, aita egin danean,
bere berbak bailirean*

Ene alaba, bihotz zatia,
kutuntxu pinpilinpauza,
entzun maitea, ene lorea,
jan egingo haut mosuka.

Heure sehaskan ez nahi egon, e?
maltzur zahar tolesbagea,
benetan bere atseginago
hirezat beso neurea.

Gaur be, *drogatxu* ez haz hasi ba,
goizean goizik negarrez?
Uste al don zain gagozala hire
ederra egin beharrez?

Orain barre, ezta? *maturrangatxu*
heureaz urten ostean.
Mosua mosu, etxeke poza,
ta egin lolo bakean.

.. ..

Lo, lo, lo egin, babalorea,
udabarriko lilia;
ta entzun ames gozotan goiko
soinu hots zoragarria.

1934

LEKEITIOKO ANDRA-AURRESKUA

Urte asko ez dala
neure herri maitean
Doniane jai batzuk
egiten zirean;
jai berezi bat beste
askoren artean
Andren aureskua zan
eberdi-aurrean.

Danok meza nagosi
ostean plazara
—lagunez jurjiduta
batetik bestera—
ohitura begiko hau
pozik ikustera,
hoba geure egunotan
bagendu aukera.

Gona baltzak jantzirik
ta gorantz gorriak,
buruko zapietan
harro txori biak
sorbaldetatik txairo
loradun krespoiak,
Manilan eginiko
sedazko mantoiak.

Auresku honen barri
Azkuek badaki,
soinua paperetan
ez al dauko euki?
Tanbolinteru zaharrak
ez leuke ahazturik;
harako bertso txua
gogora datorkit:

“Zeure bular arteko
klabelina alpakaua,
zeuri begira dago
herriko eskribaua...”
Luisatxu Kaiganeko
gaur be gomutaua
aureskua eiteko
berez izentaua.

Neskatila ikusgarri
gitxitxu lakoak
sokan ohi diran lora
udabarrikoak;
laguntzat bai topau be
euren gustokoak
mutil kolore eder ta
bana-banakoak.

Bira eta artaziak
irradan puntuak,
aurrera-atzerakadak,
oin-muturrekoak...
Gure neska-mutilak
bizkor fandangoak,
arin-arinak eta
biribilekoak.

Geure mahastietako
txakolin gozoa
edaritzat, kentzeko
egarri beroa;
kai eta lehorrean
poz herri osoa,
kale zaharrak betea
ujuju zantzoa...

1948

LANDA GIZON BANINTZ

Bizkaiko itsaso hasarreberan
ta hogeigarren mendean
Horati eta Bergili ditut
ene begien aurrean;
hek izan zuten Musa sorgina
orain banu nik aldean
bertsu xehe horiek bai giro, lorak
maiatzez duten antzean.

Hirian jaioa naizen arren
halare min dut mendia,
barren hontako maizterrak beti
du harako egarria:
goian zerua, zelaia behean,
landan atsegin-alkia,
hiriko kale ta hango istiluak
uzteko dun irrikia.

Hiriko jopu zaigun gizonak
ez daki mendia zer dan,
ez baitu inolaz aintzinetako
jainko-edaria edan,
askatasuna zein dan ederra
dio arranoak hegan,
noiznahi ortzira, gero lurrerantz
gogoak hala, orekan.

Udara dala, nahiz udagoien
zelaian dut etzantoki,
belartza guri, garotza gizen
ene soinaren lotoki;
hariztiaren orri artetik
urdinez aratz zeruki,
hango izakien zorionaren
zertxobait ohi dut eduki.

Landa erdian jauna bezela
ingurutako nagusi
—urteak alper suntsiak ote?
Erdi-mendea berpizi—;
ondasun eta bizitza oro
nekazariaren uzi,
abelgorriak, zaldi ta ardiak,
larra, alor, baso ta guzi.

Errege gudu laboraria
bordaren lau hegaletan,
olaetako morroi-txisturik
ez du hark lanaldietan;
ordulariak eguzkia ta
zilar-argia gauetan,
mandioan du zer jana, eta
ur gardena iturrietan.

Bego ogiduna goizbeluz lotan,
esneduna bidean gal,
dendari oro bihoaz nagi,
noizbait, saltokiak zabal;
aintzirak urez urri daudela
turtuki-lanik ezin ahal,
hiriko etxe harroak ilun:
jauregi ala leze-hegal?

Nekazariak gaur lehen bezela,
hor dauka ogia laban,
badu esnea, erraberoa,
zintzilikan laratzean;
eltzekaria noiznahi ohi baitu
tupina bete alean,
suspergarriztat sagardo ondua,
ta argia, zeru betean.

Eltxo moltzoak antzo dijoaz
udaran gizasemeak
uritik iges baso aldera
gizon, andra ta umeak;
izurritea zaldi gainean
ala herio-belea
haien inguru ari ote dan
nekazariak galdea.

Mendi-hegian ala haranean
negu nahiz uda gaztelu,
inoiz ez dio laborariak
aldiari iritxi belu;
haren urratsak betiro baratz,
barruan oharkeak leku,
mundu honetan nahien dudan
hantxe dut: lurreko zero.

Hogeigarrena dugun mendean
Bergili berpiz baledi
hiri handiko bizitzearen
asper kutsua hark ageri;
giza bihotza lehen ta orain
zorionaren egarri,
landa-bizitzan baitu pakea
landazale bihur bedi.

1950

ARRANTZALE ZAHARRA

Pablo Bilbao Aristegiri

Urrunera begira
itsaso ertzean
aspertzeke egon dago
ke ta ke artean,
pipa zaharrari teinka
egin bitartean
kaioak dabilkioz
hegan goienean.

Egunaren sorrera
uda nahiz neguan
sarri ikusia da
Bizkaiko itsasoan;
beti itxaropen dirdai
bular ta buruan
lehengo oroipen samurrak
ames, gerokoan.

Txapel maiz zuloduna
buruan jarrita,
praka adabakituak
belaunak puxika,

alkondara ukondua
txatalez josita,
begiak zidar garbi,
geun, erdi itzalita.

Uleak zuri baltzak,
arpegia tximur,
begiondoan eta
kokotean izur,
mintzokera nagia,
hitzak isil, labur,
nekezale ez dirudi
eta bai jaun gailur.

Lekittar arrantzale
honek esakera
soinuaz egiten dau
amai isilbera,
badirudi apaizen
jai-abestukera
mezatan heldutean
Ogia onestera.

Eskuak geldí daukaz
mintzo bitartean
itsas-semeak holan
hitzera barean;
mila elezahar eder
entzun ondorean
aldendu natxakio
ondamu antzean.

Urrunean begiak,
soina lehorrean
utzi dot laguntzarra
Talako kurtzean;
goian artizarra ager,
kanpotsak dorrean...
marinela burutsik
isil, otoitzean.

1950

ARRANTZALEARENA

Arrantzuko nekeak

Ene seme-alabok, Ester eta Txabi
bakoitza bere ohean sartuta isil jarri;
gaueroko ipuintxoak entzuteko adi:
Arrantzaleen lan ta lor astunen barri
jakin nahi al dozue? Erne, ba, belarri.

Abenduko gau baltza. Ta amaitu baino lehen
deitzaileen oihua kalearen barren;
arrantzaleak utzi dau loa lehenbailehen;
ura izoztu hurren eta teilak dirdiz garden,
egun-ilentia ez artean, ekalden.

Jagi da arrantzalea; jantzi bitartean
otoiak lora ditu ezpanen artean;
urari ikutu eta bildurra uxatzean
emazteak irripar maitasun betean,
izan ere, itsasemek beti ura aldean.

Otzarara jaki ta ogi tatoa sar,
ta oinetan zurezko txikitxokoa jar;
umeak bitartean lo, zurrunga ta abar,
aitak begitu deutse, bihotzaren atal
haek lo ikusiaz ez inolaz poz txikar.

Sudurreko dindirri, lehiak gogortu nahi,
arnasaren lurruna izpitan ikusgai;
ontziratuak dira gizon ta lemazai:
agur-egin ta utziaz (betiko?) euren kai.
Hotz, ilun, itsasoa; uhinak irri, nasai.

Uhinak barre, nasai, gosea ase nahirik,
ateko bandan gizonak uste txar bagarik,
—antzinan abantean arraunak jasorik,
gaur sukalde ondoan, berotu gurarik—
alkarri galde izango ete dan arranik.

Arrantzale euskaldunak begien argian
itxaropen txingarra baitau agirian,
bestela nola azaldu zintzilik harian
biziaren arnasa beti galtzorian?
Lehortarrak ez dauka zer hori igarrian.

Kalara heldu eta tresnak antolatu,
tretzak eta tuntuizak euren lekuratu,
hotzaren hotzez, alaz, eskuak manguitu,
ondasunak ugari, ustez han bilatu;
ahazturik han dabela hilobia gertu.

Kalan arrantzu ona hartzen hasi eta
gizonen begietan pozak agerketa,
ogi, jantzi, etxea... diru-banaketa,

dendan zorrak ordaindu ta beste pusketaz
oinetako barriak, txapel, txurruketa...

Eguberdi ingurua heldu jakenean
hodei ilun ezainak ager goibelean,
mustur erre itsusiak zemaika lehertzean
uhinak irakiten hasarre antzean.

Aduaren ankerra galmendi haretan!
gizon bulartsu haek alkarri itaunketan
ekaiz gogorra sartu al dan bat-batetan.
Ta ontzia iperloka zoro dantzaketan.
Gero? Gu, arrainen zain. Haek, ito uretan.

Arrantzalearena bai lanbide latza!
etxetik urten behar, galda izan nahiz hotza;
kai maitean utzirik gogo ta bihotza.
Kristal antzekoa dan kresal-lezea, hutsa.
Lan-saritzat sarritan deus ez... heriotza.

1950

AMA, HITZIK GOZOENA

Zerbaiten bila ibili nabil:
musika gozo nun aurki?
oroipen samur nun idoroko,
amets lorea nun kausi...
Lehia bizian ene barruan
muinak irakin diraki,
doinu iturri, susmur biguna
ene baitan dut isilki.

Ene baitan dut jario emez
betiro etengabea,
hitz bakar baten oihartzunak dit
musika sortzen barnean.
Hitz hori zein dan? Zein izango da:
Ama hitzaren aldean
ipinteko den hitzik ez dugu
gure lurraren ganean.

Ama, amaxu! hitz labur horrek
ernarazten du barrena,
haurtzaroan guk ikasten dugun
mintzakietaz lehena;
bizitzaldiko bide hoietan
batean poz, hurren pena,
Amaganako dugun joera
lehena dugu ta azkena.

Ginanik ere ez genekiela
amak eman zigun bizi,

amak odola, amak arnasa
 —Jainkoak anima, noski—;
 mundura agertu ginan orduan
 amaren minak bai hasi,
 dezaiokegun guztia baino
 amak gehiago merezi.

Jaio ondorean, odoletiko
 esnez hark ninduen hazi,
 iturri gozo, ta emailea,
 amatxuren bular ezti;
 lurreko bazka ta janariak
 haurretan alde bat utzi,
 amak sortua amak asetu,
 deuseza gitxi iritxi.

Nork egin leza holako lanik,
 nork ezerezaz gizaki?
 mundu gainean ama bat aina
 ezertxo ez da izaki:
 diru, ahalmen, ospe ta aipu,
 jolas, dantza ta bazkari,
 urre ta zilar, jauregi, dorre...
 amaren pare ezin jarri.

Zorion betez gagozanean
 adiskideak ugari,
 ingurubiran ingumak antzo
 izaten ditugu sarri;
 gazte garela, eder garela
 emakumeak ere bai,

diru soinura otseinak mila
gure aginduaren zai.
Baina ekaitza ziztuka agertzen
zaigun aro gaiztoetan
dirurik gabe, lagunez urri
soil gelditzen garenetan,
gure osasun galduen galdez
oihan minez gaudenetan...
orduan Ama! deitzen dakigu,
Ama! estu larrietan.

Ta bizi bada bizi, amatxu...
dena utzi berehala
laster askorik dugu ondoan
gure minak osatzera.

Ta, baldin ama hilik dela ere
haren oroipen gozora
gure saminen aringarritzat
Ama! dugu ezpainera.

Ene amatxu maite zinana,
beti zure oroipena,
bertsu hobeak egin nahi eta
ez da hau betarik onena;
odola eman zenidan arauz
ta bizi ta arnas lehena
eman bekizu Aita goikoak,
arnas amaitzen ez dena.

1951

OLERKI-MATXINADEA

I

Gorpu-lorra

Kristalezko kutxa baten
maitekiro gorde dot
gari-lastoz bildua
nire bertso zaharren liburua.

Luma igerra, ugartua,
hurpean dot sartua,
galtzairuzko tresna motz.

Urrezko ortz zorroztua
hartu nahi dot,
barriraztua barik
jaiobarria izan dadin
nire asmoa.
Halan be, lehengoak
esku ta burua.

Betor ba, nigana,
suspertze bardinbagea,
edur-urtute osteko
iturri gizen betea,
ta irakinerazo odol barria,
mordo maminen ardau gorria.

II

Erbestetuak

Ondarزابالera dei egin deutset
 banan banan, bertso lotuei;
Lea ibaiaren azkenertzera,
zortziko nagusi ta txiki
 ta enparaukoei.
Uretara bota dot
 neurri kordela.

Zergaitik gure hizkerea
Lot zanaren emaztea bezela
 geldi, nagi, aldaezina,
neurri jauntxoaren jopu egina?

Bertso arinez
bete dagiguzan paperak,
hitzak banan zenbatzeke.
Hemen ditut erreskadan
deituriko eredu zaharrak:
 hamar ta zortzi,
 zazpi ta sei,
 sei ta sei
eta abarreko hitz batzarrak.

—Erduze, maiteok,
orain arte jauntxu

zakiguzanok,
Eta horretara ezker
 bego Berzeo
 alde batera,
ta ez neurtu guk
hatsez-hats lehengo antzera.
Sasoia zan, bai gero!

 Ta orain goazan, eskutxutik,
izaroko horma-bidean zehar, kontuz,
txirrist egin barik.

 Hor gertatu deuntsuet
atseginezko ugarte,
larran ibili zaitezen
 aspertu arte.
Itsas urdina gerribiran,
urrezko hondartzak urabeheran.

 Neguan, gordezuloa babes
ta udan, pinadian geriza ederrez.
Ez zan hain gozo, ai ene,
bere jaunarentzat Muñatones.

Hor edonoiz, kresal-usaindun orroa,
 —mugabako zurrunbiloa—
udagoienez taldeetan
pasako usoa.

Munduko geznari
hango ta hemengo barri
itsastar ibiltaunak,
santza, kaio ta kalatxori.

Antzinako komentu zaharraren
harri bananduetan
salmo samurberak
otoiez kantetan.

Ta ni, noiznahi
zeuen adi,
ta gero be,
zeuekin sarri,
auzokide kutun
berberton, edegiak leiho ta ate,
zuekandik ez urrun
harrikadea bitarte.

Lumentxaren oinean,
neure habia maitean,
eliza ondoan,
hilerriaren alboan.

1952

AXULAR HANDIARI, OHORE

Kanta dezadan pozez gainezka
garai gogoangarria;
jaso, eredu izan zitzaigun
AXULAR gizon handia.
Guregan bedi haren itzala,
batipat mintzo garbia,
haren arnasak suspertu beza
gure Euskal Herri guzia.

Bil bitez zailu zeruan barna,
bil bitez kantuz txoriak,
iriki bitez lurrun-jarioz
inguruneko liliak;
jaietan eder bikaina baitu
egun Sarako herriak,
kantu, ohore, lurrin ta iguzki
bitez naro eskainiak.

Ele ederrez predikari on
ta animazai eredua,
bizitzaldian irabazia
lehen-oraiko dedua;
jakitun haundi, asmoz argia,
eleketan txit gartsua,
gizaldi hartan euskaldun orok
plazerki goraipatua.

Hitzaldi denak galduak omen
hizlaria joaitean,
hitz eta bihotz bukatzen dira
aldia heldu denean;
bainan Euskarak badu zorion
gizon hunen izaitean,
bere jakintza utzi baitzion
liburu eder batean.

Urdazubin sor ta harat-hunat
ibilitako gaztea
geroenean Sararatu zan
kausituz bere xedea;
hemen egin zan gizon betea,
hemen har maisu-legea,
geroztandikan Euskal Herrian
ezin nehork ken ospea.

Mendeak mende gureganaino
heldu zaiku zure fama,
ta zure eskutik, Axular gailen,
sortutako eder-lana;
Euskara baitan muga lehenak
zure izena darama,
zure lerroen muinean dugu
bazka gozo ta ahamena.

Iduritzen zait gure artean
oraino bizi zarela,
arbasoen hitz ozen beteen
berretutzaile bezela;
zu euskal maisu bikain izanik
ikasle apal naizela,
zeugan gihartsu zenuan mintzo
enegan, aldiz, motela.

Barnean dudan inharrospenak
kanpora-galez dirudi,
oraikoz duen pozkariora
ezin loturik iduki;
iguzu lagun, Axular maite,
ez dadin Euskara itzuri;
gaitezen jator, aitorren seme,
euskaldun orain ta beti!

1956

NUN ZAGOZ, MAITE?

Zugatzak ez du arrasti hontan
itzalik egin beharrik,
goibel eman ez dabil eguzki
oporgirotsu ta alperrik,
laino lodian bildurik.

Maite-orduak jo zuan baina
maiterik ez dut agiri,
hamaika lore marguldu ohi da,
lehertu hamaika gurari,
karmindu on zen edari.

Honuzkeroan ez dakusket nik
zure masailen kolore...
zauri hau nola osatuko dan
jakin nahi nuke, halare;
nork emango ote adore?

1957

EMAZTE ONA

Bai. Etxean dukegun zerik ederrena
—amaren ordezkoa—, emazte ona da.
Pitxirik bikainena, dohaiez betea,
poz bihurtzen daki hark, etxeko nekea.

Bizitzako aldapan diran koxka, zoztor,
eskurakoi aldatzen haura aina ez inor.
Etxeko langile ta orobat erregin,
etxea andrerik bage, okerrago ezin.

Eguneroko lanen suspertzaile ernea,
saminen aringarri, ondasun-atea.
Ondasun-atea da emazte zuhurra,
urri dana ugalduz sortzen du altxorra.

Oiharzun gozo duen mintzo ugaria:
senarrak badu onu, umeek ipuia.
Sehaskatxoan maizter berria denean,
haurra nork loerazi amatxok hainean?

Ta haurra eri jartean amatxo non ote?
Ez zazula galdetu; haurrek baitakite.
Bai. Etxeko ondasuna emazte ona da.
Haren pare zintzoa ote da senarra?...

1958-IV-22

ORIXERI LEITZAN

“Ta argi bat izetuz...”

Barnan dugun ilun, argiez egarri;
norabaitera nahi ta ezin igarri.
Gaztezero kolokan nor biderakusle?
Zein joeraz ekingo? Zein ote ibilbide?

Alper nagia utzi ta jite bat berezi,
zaletasun guztien gainez, bat nagusi.
Zaletasun errotsu, leraz maitatua,
egun eta eguzki maitetzat hartua.

Maite horrek bihurtzen dizu maite-zorra,
loriazko ereinotz-uztai distikorra.
Gure Euskerak aspaldi bere kutun zaitu,
Euskal Erriak zugaz zor haundiak ditu.

Herriak eskergabe maiz ohi diren arren
gure endaren oiharra bildu da gaur hemen.

Lehengo ta oraiko euskal-maitaleak
zuretzat dituzte eiki esker on aleak.
Esker oneko uztai zure bururako,
letretan zure izena duzu betirako!

1957-XII-22

“AITTITTA MOKORDO”

(Tokian tokiko)

Hondar txikia eta
gero Ondarzabal,
hatx koxkor bat daukagu
sendo baizen bakar;
batzuetan morrosko,
hurrengoan txatxar,
“Aittitta mokordo” da
guztion laguntzar.

Munduan zehar dabil
lekittarrik asko,
esatea bakarrik
ez da sarri nahiko.
—Erdia! berbatxu bi
entzuidazuz ondo:
badakizu nun dagon
“Aittitta mokordo”?

Galde horrek behar dau
zuzen erantzuna,
hori ez dakianak
nun dauko zentzuna?
Ur bizietan harro
kresal erastuna,
uraberan ederren
“Aittitta” kutuna.

Hondar txikia eta
gero Ondarzabal,
hatx koxkor bat daukagu
sendo baizen bakar;
batzuetan morrosko,
hurrengoan txatxar,
“Aittitta mokordo” da
betiko laguntzar.

1968

LEKEITIOKO KANPAIEN DEIA

Kanpaiak eban berbeta argia
gaztetan jakun ezagun,
erradorik ez telebistarik
hemen ez geunkan guk inun.

Kanpa nagosiak eberdian
dangada astun sendoak,
hiru ta hiru ta hiru entzunda
etxeruntza etxeoak.

Gurma gogorraldietan, edo
su handirik inun bazan,
luzarokoan ekin ta ekin
nagosi horren dangadan.

Gaixoren bati eleizakoak
etxera eroatean
bosnako saila hiru jotaldiz,
gero txilina eskuan.

Hilarra betiro da lazgarri,
—urrunean norbait hil da—,
ez hildakoa, ez katabutik
ez doa, ez, hilerrira.

Kreduak meza nagositan Kredo
bat, bat, bat jota agertu,
etxean dagoanak errezuz
sinismena guztiz gertu.

Albako kanpai itzartzailea,
Aremaitekoan be bai;
hiru binakoz oleazino
une larria agerkai.

Jaiotean ez dogu kanpairik;
azken-kanpaiak danok gei:
zazpi dangada... gizonezkoa,
emakumea bada, sei.

Kanpa nagosia ta kredoa
zirean hileta-soinua,
ta aingerua be, hirugarrena,
euki ezkeru dirua.

Ezkiloi biak, etorte-deia
meza nagosi aurretik,
arratsaldean errosario
unerako da ereti.

Eta Salbe esturazkoa be
kantauko dala iragarri,
premina latzez, arren bai arren,
Antiguako Amari.

Aingeruak ba, izen polita,
baina bakarrean ez da:
aingerutxu bat joan dalako
ames galduko hileta.

Egun-amaian azken dangadak
arimenak dira izaten;
zapatuetan albakoan be
txintxina dogu entzuten.

Urteak badau Aste gorena,
Kristoren heriotzaldi;
bariku santuz Trikimakia
motel, motz, legor ta geldi.

Kanpai guztiak direanean
orkestarik ederrena,
jai-antza dakar, poztasuna ta
behar dan itxaropena.

Mezatarako txilina...
eta Kofradiakoa...
bitzuok ixildu dabez eta
ilundu deuste gogo.

1971

LURRALDEA TA HERRIA

Lekeitio, polita zara!
—heldubarriaren esana—.
 Itsasaldean
 lehor-ertzean
urdin eta berde artean.

Hondartza txairo, portu, mendi,
jokera aukeran Amandarri...
 begiak pozik
 ikusgarririk
politenak hor ikusirik.

Heldubarriak ezin jakin
herriaren gogo ta mamin:
 azalekoa
 ez da nahikoa,
barruan zuk takarakoa.

Zer dozu zerik ederrena?
Andren ta gizonen kemena.
 Alkartasuna,
 laguntasuna,
lekeitiarren bihotz biguna.

Itsasoa baizen emonkor,
arnasa sendoz herri jator;
 beti kantari,
 begiak argi,
agur-agurka edonori.

1979

KASPARREN ZALDI SENDOA

Harrizko zaldi eder sendoa,
nun da Drake itsaslapurra?
Gizon gaizkile harentzako be
azken orduko egurra.

Zerualdea hodeiz jaztean
hor zagoz dolidu barik,
ekatx gogorren ostean une
barea dala jakinik.

Iparraizeaz ezkutuan zu,
arerio, mendebala;
herriko haize epeltzan tente
zeure buru ta bizkarra.

Noiztik zagozan inok ez daki,
ezta Gaspar nor zanik be;
hainbat olatuk landua zara,
misteriozko ixilpe.

Gizaldi eta gizaldietan
barrako orazinoa
sarri entzuten zenduan lehen,
hori be galduaz doa.

Kulpitua hor ikusten dozu,
ez *Prailearen burua*,
kresalez garbi zure apatxak
ta *Islako Surtziluak*.

Gorputza lerdan, burua zutik
lehorraldera begira,
Antzar-Egunez lekeitiarrak
zeugana joango dira.

1981

ERLEEN ANTZERA

I

Iturbekoa

(Jose Mari Arizmendiarieta)

Basetxe zuri haretako
mutiko zolia,
etxauntzea uzteko
goiminez igurtzia,
Iturbe izan zan
haren sortokia.

Gaztetan, ume artean,
basetxearen garizean,
lanak eta pozak
umetako gauzak
beste ames batzuen eskean.

Ikasi,
ikusi,
jakingurea,
bizitza barriko
heldubidea.
.. ..

Dunbotsak mendian,
suhagak urian,

gerrate zital mingotsa
heriotza ugarian.

UU uuu u, u u uuu u
ai ai ai ai ai ai
ene ene ene ene ene ene
o o o nahikoa da odolik;
gorrotoa bego,
ganezka egina
honezkero.
.. ..

Jauna zuekin,
Jauna zuekin...

Goizean otoi
ta gero, ekin!
lanaren santu-gatza,
ez usteltzeko
behar dozuen
lan gozo ta latza.

Mendi heze arteko
uri politean
abadekuntza hasi
ta oztopoak gorabehera
amaituko,
borondate betean;
zintzotasunean
Arrasate-zale,
Arrasaten beti
Jose Mari Arizmendi.
lan lan
 eta eta
 lan lan...

Argitasunez buruak,
lanerako prest eskuak;
bakea gizon guztiengan,
bake horretan
kirola, eta lan
lan eta lan,
lan, beti
lan.

Aintza zeruetan,
maitetasuna, jaiioengan.

Geldia, atsedena
ez zan haren grinea, uzia;
atseden egiteko...
han, azkenean, Parusia.

II
Eztigintzan
(*Bitoriano Gandiaga*)

Behinola...	bihotzak mintz-zart,
hatx erpinetan	lilura ta bildur
harriak pilatuz	arrotzen agintepean
biribilduriko	orduán
prailetégian	eta gaur bere,
ezagutu neban	giza
gaztetxu	-bildurra
gozo, ixil,	ta giza-kemena
oldeder,	burruka
erditze-minetan murgil,	etenbakoan,
ameslari ta otzana,	ene Gandiaga,
behinola,	bat ete da gizona
Gandiaga.	ala bi?
	ta are hiru bere?
Gure mintzo	asmo, gurari goitar,
beheratuaren	hegadun hegalari
bizigureak	kemen, lur, grina
sorturiko bilera	ta odola
minberatsuan	narrastari;
batzandu ginan,	behinola...
aldi baltzeko	
laino artean	Gerogarrenean
Aloñapean	Bizkaiko

Larrako
komentu aldean
ikusia,
—epaikari ni—
ta Gandiaga
olerti-saridun,
gogoa pozez igurtzia,
baina atsekabe
txiker batek zuloa
begi sakonetan.

Anartean

bezuzik
txanbelinena
edergoaren
altzora ekarri,
Elorri
goi-gizonaren lurruna
amaren berbeta biguna
buru-belarrian barriro,
zeruaren urruna
geureganago
geunkan
zorion txikiko
unetxo laburrean.

Behinola...

mintza-ortzian
izar dirdiratian
zeruko intza,
gogoarentzat ezti;
haize, arimearentzat.

Behinola

bezala
emoiguzu,
Gandiaga,
elorri gazte,
elorri barri,
gogo igarraren
asegarri,
guretzat ezti
txertakari.

III

Izurtzan jaioa

(*Nikolas Alzola Gerediaga*)

Pagoak orriz jantzi
-jantzi diranean
aldegin dozu, alde
ixil-ixilean,
saminez lotu gara
euskal alorrean,
ta ustekabeen.

Gizadi sail handian
banakako ume,
lurtar baina goi-haizez
sendo eta xume;
lehengoez gainera
barri dan hutsune,
maitezko lokune.

Orainaz ta geroaz
barrua urduri,
gizon bakotxak dauka
misterio txuri;
misterio horrezaz
galdeak zuk guri,
ames ta gurari.

Ederrak ikutua
arima zurea,
begietan zenduan
margo-dolarea,
lan txukun zuk bihurtzen
zeru lurraldea,
atal eta alea.

Gorantz abiauteko
azkona bezela
izpiritua zorrotz,
gorputza kartzela;
baina, bidazti zintzo
maite zenduala
herri ta euskera.

Euskal bide horretan
zindudazan topau,
harako ilunaldia
bai egun ta bai gau:
zerbait argitu jaku
oraingoan lur hau;
amesgurea dau.

Jakinguraz beterik
gogoa itzarri,
bidaldian batzaile
inoiz ezin geldi:
ele, ipuin, hizkera
txorta zoragarri,
arduratsu jarri.

Atalak atalkatuz
osoaren bila
zure jardun ekina
apal ta ixila;
orain burutu dozu
ardatza, harila,
Azken Biribila.

1982

ETXENAGUSIA (KARMELO) JAUNARI

Errekastoaren ura,
ur garbia arean,
beheak behera
udan otzan doanean,
doinua entzutea
ez da errez.

Errekastoaren
ertz bietan
ilarren adarren
nagiak atera beharrak
eta ira berdeen beso naroeak
estaldu samar dabelako,
uraren joanaren
bizkar kixkurra
gure begiokaz ikustea
ez da errez.

Horraino,
ixilean
—zaratea asao—
geldi ezinean
—ur egondua ona ez dalako—
joan doan ur horrek,
gurari zabalenez

ezotuten ditu
bazterrak eta haragokoak,
eta hortik sortuko
aitor dan lurrean
hamaika emoi,
hamaika zitu.

Ur ixil hori,
ur estali hori
Arizmendiren harako
saraspeko iturritxuaren
jarraipen antzo,
gure don Karmelo
ez ete da?

Zeruan zehar
arin
irradan
igaro dan
izarki ixila,
lur ganean
geriza gozoaren
azterren suntsikor
iheskaria
erakutsi dauana...

euskal-solo
preminatsu
egarberan
ongile
ta ur-ekarle mazala,
don Karmelo gurea
ez al da?

Gizonon bihotzetan
bizitzako gorabeheretan
sasilarrek sarri
lur emonkorra
ohi dabe estali.

Gaurkoan
larrak mozturik
brastadan beioaz sutara,
Donianek ihes egin deusku
baina ez da ardurarik,
inguruan dabil hegan
sentimenaren aurreku.

Esker onaren baratza
bihotz aberatsa
besterik ez da ta,
Labayrukoen omen
txiker gozoan
pozezko txalo ta zarata.

Beiondeizula,
euskal nekazale;
laga dozuna
euskaldunek jasoko dabe,
esker oneko
txorta usaintsuek
zeure barru otzana
onduko,
ta zugan loratuko
iraupenezko ondare.

1989

HIRU KOLORE

Amandarriko argi berdea,
barrako argi gorria,
topeko farolaren begia
zuri-zuria.

Aberriaren ikurrak
ditu hiru kolore,
muturreko hiru argiek
bardin beste hainbeste.

Egunez itsasoa ta
zeru urdina,
mendien berdea dabe lagun;
ilunpean geroago
hiru kolore ezagun.

Gauaren ilunean
baltza errekon doa,

baltza itsasoa
hiru argien irribarreek
adoretuten gogoa.

Marmar luzea dabe
olatuek beti,
bizi dardarea dabil
euren zanetatik.

“Olatuak Karraspion”
aspaldiko esaera labur;
urduritasun horren
irakin etenbakoan
mosuka ta mosuka
itsaso eta lur.

1990-VIII

ITSAS

Itsas... berba labur izenez;
berba zabal, izatez,
zeruaren seme,
lurraren senide,
jaio gineanetik
gure begion adiskide,
itsas.

Ameskariak zeugan
nahi dabe mozkortu,
ontzi oihaltsuetan
joan, jolastu,
zeure ule harroak orraztu.

Itsaso
gaur eta atzo
zeure barruan
soinu etenbakoa,
eta edonun
hatxa ta hondarra,
zeure atadiko lurra
samurregia jatzulako.

Itsaso
hitz jaso
haizea zuk morroi eroso.

Itsasoa...!
Mundu biribila,
haizetan hutsean dindilizka
eta itsas-urak ez dira hutsetara jausten.
 Mirariaren haundia!
Hainbatentzako eskeintzen dozu janaria,
zeure ume dira ibaiak eta aintzirak.
Hodeien inude,
gizonarentzat zure
euri aberatsa.
 Itsasoa...
bizitasunaren jabe
zure gogoa.

1990

ZINGO TXIKI, ZINGO HANDI

Zingo txikian igeri ikasten
ume denporan aurrera,
eta gero abadeen moilan
zapaletik zapalera.

Zingo txiki ta handiak
hor dira aukeran,
marraixu ta izurdak
bizi euren eran.

Portu erdian buia egoan,
haraino joan ta etorri,
horren hurrengo bildurrik barik
moilatik moilara segi.

Lehorrean azeri
itsasoan zarbo...
bizitzarako maixu
hoberik ez dago.

Olatu bako itsasertzari
makal eretxi ezkeru,
Karraspioko olatu bitsak
lantxarakoan ze ederto!

Hostala laster dogu
erdi barriztaurik,
hor egon da aspaldion
hain ganora barik.

Zortziko handi, zortziko txiki
erdizka aurtengo bertsuak,
anaitasunik samurrenagaz
emon alkarri eskuak.

Itsasondoan jaiio,
ta kresaltzan busti,
zerura igongo dogu
guk kresal ta guzti.

1990

LAU HANKAKO OILARRA

(Koplak)

Aketeneko txakurra
maitetasunen lapurra
lotsabageak txit gaztetatik
uxatu eban bildurra.

Arranegian hasita
edozeinentzat bisita,
uri osoa txiki geratu
bere sena ikusita.

Lagungina zan benetan
ta ez ekian berbetan,
mosalduna ta mosalbakoa
bat arbola ondoetan.

Ez hesi eta ez muga
ezek ez eutsan ardura,
inguruetakoa baserriak
bere planean barrura.

Bide estuetan zehar
konpasik ez eben behar,
hain basetxeko txakurremeak
haren zain intziri negar.

Batzuetan ez-ikusi,
hurregoan zaunkaka hasi,
baserritarra akuluagaz
eta Aketa... ihesi.

Ibilteko modukoa
Narea-r lau hankakoa,
dzartazo batzuk barruna arren
ez harek galdu gogoia.

Zokil, harri ta egurra,
bildurrik bako muturra,
sarritan aitaturia izan da
Aketeneko txakurra.

Ahaztu jaku zein kolore
haren gorputzeko ule;
lumarik bako oilarra zala
zaharrek esan ohi dabe.

Arranegiko katuak
gabaz sorgin bihurtuak,
famarik bage hor itxi ditu
zaunkalari burutsuak.

Aketeneko txakurra
liberalaren agurra;
frantsesen *laissez faire* (eginda libre)
katedratiko maltzurra.

1991

ANTXINAKO KOMERIANTEAK

Sasoi baten genduzan
noizean behinean
gabetan komeriak
plaza zabalean.
Tribu ilunetan
etorten zirean
komeriante aldrak
artisten antzean.

Motzailak be sarritan
ikusten genduzan,
matxangoa eurakin
eta hartza dantzan,
pandero ta tronpeta
kale edo plazan,
patarien zikina
ikusgarria zan.

Tribuli eta zaldi,
txakur, ahuntz, aker;
gizon, andra ta gazte,
umeteri eder;
baterik besterako
emigrante leber,
bizimodu ekina,
ezelan be ez alper.

Turuta zolia ta
tanbor durundua,
horixe izaten eben
gau ta egun soinua,
zabalkunde bitartez
danak ulertua,
karburo argiagaz
plaza ingurua.

Komerianteak beti
azal baltzerana,
herria ikusgura
bihurtzen ebana;
soinuz bete kalea
ta kantalbarrena,
gabaz izango zala
jaialdi lerdena.

Plazearen erdian
korru biribila,
umeak arduratsu
jesarleku bila,
zurezko aulki luze
hazurren makila,
pilaretan be, asko
korrura begira.

Lehenengo saioa
txakurren kontura,
txirriboletan zehar
kanpo ta barrura,
txakur baltz eta zuri
argal ta jangura,
hazurren orde z sarri
iturriko ura.

Tronpetea jo, eta
zeregin barria,
emakume jaseko
eta dantzaria,
satenezko soinekoz
distiragarria,
gizonezko gehienek
harengan begia.

Baina beranduegi
egin ez eitean
dirua batzen eben
ikusle artean,
hojalataz egina
han euken hestean
dirua sartzen jaken
tantaka antzean.

Tanborra be jo, eta
ahuntz adar okerra
eskila estuan
gora ta beheara;
adardunak horixe
lana ta galera,
tontorrean apatxak
lau-laurak batera.

Modako kupleten bat
kantagai alai,
arrantzaleek pozik
dinotse: “Ole, ya.”
Txiste batzuk esanez
aurrerantza jaia,
azkenengo arloa
arriskuz josia.

Azkenengoko horrek
badau bere zera:
“alanbre-ganekoa”
herri esakera;
masta puntakoaren
halako antzera,
baina behean ez urik,
bai harri lazbera.

“Alanbre-ganekoa”
egin bitartean
ikusleak ixilik,
arnas etenean;
tanborra makal-makal
burrun apalean,
artistea be larri
aurrera bidean

Eta... “mañana, mejor”
esaten ekien,
azken diru-batzea
hutsa zan sarrien;
halan diru eskasa
sumaten baeben
“mañana, mejor” hori
hutsean geratzen.

Mux eta mux egiten
komeriantek
hazur bigunekoak
ume ta gazteak,
eta euren antzera
gu eta besteak
hondartzan mux eta mux,
samara hesteak.

Hain urrun dagoz orain
antxinako erak,
terrala patrikaran
ta duban eukerak ...
Edurra hasten danean
triste hegaberak,
danok gura gendukez
bizitzan uberak.

1991

TESTULARIA

Sutara botako ditut
ezetarako balio ez daben paperok;
lerroak lerro, gantzik daukenik
ez dirudi-ta.

Barriketa lar
onerakor edo egoki ez dan antzera,
alperreko letrak beioaz sutara.
Inkizinoxuren bat
komeni da noizean behin.

Beharbada
bertsokada luzeen orde
testulariaren orratz zorrotza
zoliago, sarkorrago izan daiteke.

Egunerik egunera
gabiltz zarataka
—oiloak kakaraka—
eta doinurik ez dogu sortzen,
datuak zapaldurik gaukazala edo.

Ederra nahi, ta guzurrezko testua,
prosarik astunena darabilgula
sinestu gura ez-ta.

Barriketea gorua balitz ...
mandeuliaren jarduna
idazlerroak anaikideegi direanean.

Testulariaren sen fina
noizbait behar,
eta gaur dot patxaraz goratzen
haren gatza ta pipermina.

1992

POESIA EZAGUTU DOT

Berandu bada ere,
Poesia ezagutu dot.
Ez dau egunik, ez urterik;
ez gorputzik ez neurrik.

Bera bage,
lurgane hau negargarri.
Bera bage,
gizonak hutsunea dau
izpirituan.

Ordutsu izan ez naizen arren,
poz handia dot noizbait ere.

Poesia
inoiz ez da zahar,
gazte da betiro;
biloizik edo jantzita
hor dabil etxean
gizartean,
auzoan, kale gorrian
baina askoren inorantzian.

Sendoa dalako
ta halaber emea
ez da edonor haren zale;

pertsona zirtzila, barriz,
arerio;
ta holakoari, onaren ordezt
kutsua datorchio.

Harako Musak
Poesia baino
geroagoko dira;
halan uraz ta lehorraz
lehentarrago laino.

Poesia ...
unadetan matxino,
unadetan bare,
arimetako ekatxen garaile.
Gaur behazun,
bihar gozotasun,
biziminak hasarreari
agur eta agur.

Gizonaren osoa
ta zatia dala
olertiak bere umeak
euren jardueran
mota bereziko ditu:
barru-kanta soinuuzko erretena,
ta jazoaren azalpena
ta gizakume guztien
eztabada lerdena.

Ezagutu dot ezagutu
Poesia,
aspaldietan haren
bila ibili ondoren.

Eta lotsatuta nago,
ez dakit umeak
baino areago.

Ez da poesia
esate soila;
arimearen dardarea da,
putz eta haize ikusiezina;
batzuetan hizkeraz agertua,
baina ez beti neurtua.

Bizitzaldiko sua,
giroan dan oldar
eta izterbegia;
amore emote guragarria,
ta alkartasun ezitia:
gizadiaren errotarria.

Aufa!

Amaitzen ez dan arnasearen
kemena
ta agerpena,
menturaz ezagutu dodan
bizikaria,
Poesia.

1992

HITZAK JOSTEN

Ustea zindo dauala
idazlea
—saihetsean kezkea—
une ta ezune
hitzak alkarri josteko
gertu;
ikasi, entzun, asmatu,
paper zurira
noraезean aldatu.

Jaio zan
ta bekokian daroa bere sena.
Liluraren bati atximurka
egin nahi, ta lilurea
mitxeletearen pare besterik ez,
hegotxuak mehearen mehez
suntsikor jakoz
hautsa ta kolorea galdu ahala.

Ardatza purrustilea danean
nun josi hitzak?
Purrustila huts horretan
ito egiten dira
mintzoaren mintzak.

Idazleak hor dihardu
egin eta berregin,
amaraunak bere sarea lez,

eiliren bat edo beste
menperatu guran.

Idazlea

—goraipatua edo ezetsia—

jaio zan

eta ez deutso inori salduko

bere luma-zuzia.

1992

ARIMAKO KILI-KILIA

Luzea edo laburra
gure jantzia,
horren jakitun
Ehule Handia.

Ikutua,
ikusia,
jaioaren
gutizia.

Ezin ikusi dabe
gure begiok
ilunetan,
arimatxuan
noizik behinean
aldakuntzarik
ete dan.

Txandaka
lau aldeetarik
dabil haizea,
nor da haize-orratzaren
jabea?

Lapikotxoia laratzean,
barrukoa bolbolean,
egunean egunean
gose-egarria gorputzean.

Lurruna eta
usain gozoa
ihesle urduri,
eskuaren indarra
ez edozetan nagusi.
Guraina zelan nasaitu
kezkearen gerrikoa?
Bihotz esturaz jarten
etorten da ustebakoa.

“Andra Santa Ines
bart egin dot ames;
ona bada bion partez,
txarra bada, beioa artez.”

Luzea edo laburra
gure jantzia,
itzarrik dago beti
Ehule Handia.

1993

Idatz & Mintz
Literatur atalen sorta
aldizkariaren
43. zenbakiko separata